Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

3152

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, 500/09 Babes-Jurisdikzioko Prozedurari buruzko Administrazioarekiko Auzi errekurtsoan interesa izan lezaketenak deitzen dituena; Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Zuzendariaren 2009ko martxoaren 12ko Ebazpenaren aurka jarritakoa eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien aretoko bigarren atalak aurrera daramana. Ebazpen honek, praktiketako funtzionario bat kanporatu zuen Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko deitutako hautapen prozesutik, zeinerako 2005eko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez egin baitzen deia (2006ko urtarrilaren 16ko EHAA, 10. zenbakia).

Goian azaldutako Administrazioarekiko auzi errekurtsoa (500/09 Babes Jurisdikzionaleko Prozedura) aurkeztu da eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien aretoko bigarren atalak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatuta, eta Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2009ko apirilaren 21a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3152

RESOLUCIÓN de 21 de abril de 2009, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo perteneciente al Procedimiento de Protección Jurisdiccional n.º 500/09 que se sigue en la Sección Segunda de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco contra la Resolución de 12 de marzo de 2009 de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco por la que se declara a un funcionario en prácticas excluido del procedimiento selectivo para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Ertzaintza convocado por Resolución de fecha 26 de diciembre de 2005 (BOPV n.º 10 de 16 de enero de 2006).

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (procedimiento Protección Jurisdiccional n.º 500/09) identificado en el encabezamiento, y habiéndose solicitado por la Sección Segunda de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 21 de abril de 2009.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.